

## **NEMO KAPITAINAREN AZKEN BIDAIA** **(Donostia, 2017-05-04)**

Nemo kapitainaren azken bidaia liburuan Nadiaren istorioa kontatzen da. Nadia ez da bere aitarekin bizi kartzelan dagoelako. Jaio zenetik ezagutu du aita kartzelan eta, hura ikustera joatea gustukoa duen arren, espetxeak toki hotz eta zikinak iruditzen zaizkio. Horregatik, galdetzen diotenean, kartzelara joan orde z urpekari batera joaten dela esatea nahiago du. Nemo kapitainaren gisara ikusten du Nadiak bere aita, bakarrik, liburuak inguruan dituela.

Hamaika haur daude Euskal Herrian bidaia luzeak egitea behartuta daudenak guraso edo senitartekoren bat ikusi ahal izateko. Errukian erori gabe, haur horiek guztiek merezi zuten haien historia kontatzen zuen ipuina. Izan ere, besteak bezalako haurrak izanagatik, ez dituzte besteak bezalako gauzak egiten: bidaia luze eta aspergarriak, gutun bidezko harremanak, aurrez aurreko bisitak... eta batzuetan, gainera, gustuko gauzak egin ezinik geratzen dira: lagunuen urtebetetze festak, kirol partidak, edo besterik gabe, etxean geratzea ezer egin gabe.

Zalantzarik gabe gogorra den egoera bati Nadiak irudimenez eta maitasunez egiten dio aurre, arrangura edota gupidarik gabe. Horretarako familiakoen eta lagunuen laguntza izanen du. Hain zuzen, Castillo Suárezek liburu hau egiteko guraso biak edo bietako bat preso duten hainbat familiaren laguntza izan du, kontakizuna egiantzekoa izan zedin. Azaldutakoa gogorra izan arren, haur horien duintasuna da aldarrikatzen dena, eta haien bizitzako alde ilun hori kolore alaiago batez koloreztatzeko duten eskubidea.

Castillo Suarez